



LEZO'KO UNIBERSIDADEA, ISASTI'REN JAIOTERRIA.

LEZO'TAR ISASTI'REN EUSKAL-IDAZKERA

J. A. LOIDI BIZKARRONDO

Lezo'tar ospetsuen artean, «*Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*» dalakoa idatzi zuen Lope Isasti dugu ezagunenetako bat.

Ontaz eta bere lan bikaiñaren berri, batek baiño geiagok idatzi izan du bein baiño geiagotan; bai OARSO ontan bertan ere. Eta ez da arritzeko; lezotarrak ere oarsotarrak dira-ta...

Bestalde, guk, errenderiarrok ere, badugu, eta ez txikia, Isasti dalako ori (alproja bat izan ba'litz ez!), Errenderi'ko «semetzat» artzeko eskubidea. Isasti idazlea izan zan; eta ez makala!... Idatzi al zezakean bere «*Compendio Historial*» dalako ori bere aurtzaroen irakurtzen eta idazten ikasi izan ez ba'lu? Ba... ori, ain xuxen ere, Errenderi'ko Irazabal jaunaren eskolan ikasi zuen... Norbaitek esan ere esan du, bere gurasoak errenderiarrak zirala, berak, bere aita irundarra zala esan ba'zuen ere. Baiña... tira!

Oek onela, bere lan ederraren xeetasun bat argiratu ta ezaguerazi nai nuke.

Badu, bere lenengo liburuko amairugarren kapituloak («*De la lengua cántabra bascongada, de su antigüedad y elegancia*» izen-burutzat dakarrenak) batez ere, euskerazko zatitxorik. Aztertu dezagun bere idazkera. Nolako izkiak darabilzki?

a) Ez da ia «H-rik azaltzen: *hildadina, hume, Christoren* eta *loh* bakarrik arkitu ditut kapitulo osoan. Eta guziak besteenak dira.

b) Naastuan darabiltza, ots bercko bezela «c» (*eci*), «ç» (*çura*) eta «z» (*aizera*).

c) Berdin «i» (*amurraia*) eta «y» (*beyac*).

d) Gaurko «ge» ta «gi»-ren ordez «gue» (*guezurra*) eta «gui» (*guibeleco*) erabiltzen ditu.

e) Ez du «k»-rik erabiltzen. Bere ordez «c» (*nolaco*) eta «qu» (*gaizqui*) baizik.

f) Bai «b» (*bera*) eta bai «v» (*vici*), biok azaltzen dira.

g) Baditu «ts» (*eracutsi*), «tz» (*aitzean*) ta baita «tc» ere (*vicitcea*), baiña ez «tx», baizik eta «ch» (*guchi*) bere ordez.

h) «B» eta «p»-ren aurretik «m» dator (*illumbecco, tempora*).

i) Idazten du «ñ» (*oñac*), baiña ez itz baten bukaeran (*arin*), eta baita «mn» ere (*inno*). Berdin «ll», itz baten tartean (*beargille*) eta bukaeran (*dabill*).

j) Badu «x» (*gaixto*) eta baita «ss» (*usso*).

Eta abar.

Baiña, jarrai dezagun aurrera. Dakigun bezela, bere lenengo liburuko amargarren kapituloan («*De las casas solariegas y de apellido en la provincia de Guipúzcoa*»), Gipuzkoa osoko etxe-buru edo sortetxe guzien berri ematen digu erriz-erri.

Isasti berak adierazten digu orratik (I-X-143), naiz eta 2.552 etxeen izenak eman, bat baiño geiago ezjakiñean edo naiezean edo, izendatu gabe geldituko zirala, baiña ez zezala iñork uste izan, naita, bere gogoz utzi izan zituenik. Barkatzeko beraz, berak, Madriletik (an idatzi bait zuen) bestetarako gaitasunik ez zuela izanda.

Bestetik, berak dion bezela (I-X-142), etxe oen izenak, bat bestearen aurrean idazte orrek, ez du esan nai lenengoak urrengoak baiño etxe «aundiagoak» diranik. Iñork ez du iñongo aintzintasunik, iñongo len-izaterik. Guziak dira ospedunak; izen onekoak. Ez uste izan iñor arbuia, iñor iraindu, iñor minberatu nai izan duenik.

Orregatik, berak, Isasti'k alegia, besteengatik jaso dituen bezela, etorriala, ematen ditu. Erri batzuetan asko, besteetan oso gutxi. Bere agiri-emaile nolako, izen lerroa alako...

Ala ere, bein, —bein bakarrik ain zuzen ere!—, Irun'go etxeen izenak ematen dizkigunean (I-X-6 eta 7), abezeka, izkien jarraian, urrenez-urren, jartzen dituela adierazten digu. («*Las demás casas... en Irún se ponen en abecedario*»). Ala ere, ori bera ez esanarren, beste bi erri oetan, Oiartzun eta Azpeiti, izkien jarrai berean jartzen ditu.

Onela ematen dizkigu bada, Irun'go etxeen izenak:

- | | |
|-------------------|------------------------|
| 1. Aranzate | 37. Eguiluce |
| 2. Alzaiaga | 38. Emparam |
| 3. Alatriza | 39. Eraustieta |
| 4. Alzola | 40. Escorza |
| 5. Alzubide | 41. Endara |
| 6. Aldabe | 42. Francia |
| 7. Aguerre | 43. Gainza |
| 8. Aguelarre | 44. Gomicena |
| 9. Ambulodi | 45. Gornochena |
| 10. Ansanea | 46. Ureder |
| 11. Aramburu | 47. Ibaeta |
| 12. Aramburu (b.) | 48. Ibargoien |
| 13. Aranibar | 49. Ibarrola |
| 14. Aranguren | 50. Izaguirre |
| 15. Arbelaiz | 51. Iguiniz |
| 16. Arriaga | 52. Yurzun |
| 17. Arribillaga | 53. Iparraguirre |
| 18. Arana | 54. Iturrieta |
| 19. Arrieta | 55. Larzabal |
| 20. Arreche | 56. Larralde |
| 21. Arzaiz | 57. Larreandi |
| 22. Arizti | 58. Lastaula |
| 23. Arizmendi | 59. Lascoain |
| 24. Armora | 60. Legarra |
| 25. Artalecu | 61. Lecaiena |
| 26. Artiga | 62. Leguia |
| 27. Astigar | 63. Lizardi |
| 28. Aurbes | 64. Macazaga |
| 29. Azpilcueta | 65. Maincia |
| 30. Beraun | 66. Mendivil |
| 31. Belbeo | 67. Olaverria |
| 32. Berutaran | 68. Olazabal |
| 33. Buztinzuriaga | 69. Olagaray |
| 34. Zavaleta | 70. Oyanguren garaicoa |
| 35. Zamora | 71. Oyanguren azpicoa |
| 36. Cimizta | 72. Oyarzabal |

- | | |
|-----------------|----------------------|
| 73. Otaze | 80. Ugalde |
| 74. Portu | 81. Ugarte |
| 75. Primaute | 82. Uranzu |
| 76. Puiana | 83. Urdanibia o Irun |
| 77. Rivera | 84. Urdaia |
| 78. Semezarrena | 85. Ureta |
| 79. Tompes | 86. Usateguieta |

Isasti'ren idazkeraz, leen esandakoaz gaiñera, zerrenda ontako xeetasun batzuek argitu nai nituzke.

Batetik *Zavaleta* eta *Zamora* (34 eta 35), dauden «tokian» daudela (*Buztinzuriaga*) eta *Cimista*-ren tartean alegia, ziur egon gindezke «c»-kin idatziak izan zirala asieran. Eta gero, jatorrizko «c» oiek beren xiria galdu eta, marratxorik gabeko, «ç» utsean biurtuak izan zirala.

Aldaketa au bera izan da noski oraingo Alcaiaiga (Alcaiaiga/Altzaiaga), Arreçubieta (Arricubieta/Arrizubieta) ta beste toki-izen ta abizen askoren iturria. Erdal izkuntzak, beren izkuntzetan euskal ots batzuen kidekorik ez zutela ta («z», «ts» ta «tz»-renak batez ere), askotan ibilli izan oi dira nola idatzi ez zekitela.

Jarri ezazute bada *Zavaleta* eta *Zamora*, *Çavaleta* eta *Çamora*, eta beren lenengo izkien jarraian geratuko dira *Cimizta* eta *Çimizta* dala. (Auxe bera gertatzen da Oiartzun'go—*Zaldua*, *Zamora* eta abar—, eta Azpeiti'ko izen lerroetan. An ere, leen nion bezela, Isasti'k ez esanarren izkien jarraian ematen ditu-ta bertako etxeen izenak).

Gipuzkoa'ko etxeen izendegi ontan, jatorrizko «ç» oni eusten ditela, Leaburu'ko iru *Caiçar* bakarrik ageri dira. Ikus auzi au bera, «*Proberbios en Bascuence por abecedario*» (I-XIII-17) beste era batera erabakia: *Çayetán zur, eta iriñetan ero*, «*Çura beraago, arra barrenago*».

Beste aldetik, or dago *Yurzun*, «Y»-kin, *Iguiníz* eta *Iparraguirre*-ren erdian. «I» eta «Y» berdintsutzat jotzen dituela.

Baiña, badago Irun'go etxeen zerrenda ortan, beste zer-nolako polit bat. Ikus ezazute or *Ureder*, galduta bezela, *Gornochena* eta *Ibaeta*-ren tartean.

Nere ustez, *Ureder* ori «H»-kin idatzia zegoen asieran iñolaz ere. Au ontzat emanezkero, eta ematekoa dala deritzait, izkiak bere eran, urrenez urren, ondo jarraitzen dute: *Gornochena*, *Hureder*, *Ibaeta*... (Etxeen zerrenda ontan «H» duten izen oek bakarrik arkitu ditut: *Herreria* (Motriko'n), *Hernando* (Villabona'n), *Huarte* (Ibarra'n), *Humendia* (Mondragoe'n) eta *Hemandasoro* (Ezkioga'n).

Nork kendu ote zuen bada «H» ori?...

Isasti'ren «*Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*», 1850'garren urtean argitaratua izan zan lenengo aldiz. Ez zuten bada gure Diputaziokoak patxada ederrean ta lasai asko artu, Isasti'k 1625'an idatzi zuen lana! Bere itzaurrean Guereca jaunak dionez, orduan lortu aal izan zuten esku-idazki artan, ez zuten ez zuzentze, ez orrazte txikienik ere egin. Dana, akats, oker, uts ta guzti, bere artan utzi omen zuten; Isasti'ren xalotasun ta bizitasun jator ura gal ez zezan.

Jakiña da orduan, 1850'garren urtean alegia, liburua argitaratzeko, jatorrezkotzat erabili zan esku-idazlana, ez zala Isasti berak 1625'ean idatzi, ta Floranes dalakoak 1781'ean Diputazioari eman zion alea, baizik eta, dirudienez, edo ustez beintzat, Azkoiti'ko Antonio Maria Zavala jaunak 1782'an Diputazioaren aginduz idatzitako kopia bat.

Eta, herriz diot: nork kendu ote zion *Hureder* dalako orri bere jatorrizko «H» ori?... Isasti'ri Irun'go etxeen zerrenda biali zionak, «H»-kin idatzita biali zion noski, Isasti berak ere, A-B-C-D... izkien jarraian, izkira-kirian,

jarriko zituela esan ondoren, badirudi «H»-kin jarri zuela asieran. Bestela, zertako ezer esan? Gero, esanak esan, piper utzi, ta Isasti berak kendu ote zion ba? Lan orren ertzeetan, an eta emen, oarrak jartzen jardun ziran Floranes, Paterina edo beste ezezagunen bat izan ote zan ba?... Antonio Maria Zavala bera agian?...

Lenengo argitaraldia egiteko erabili zan esku-lan ori ikusteko, ez dut oraingoz, egokitasunik izan. Ba'liteke ale ori auzi au erabakitzeke gai izatea.

Jakiña da, orain bezela, garai aietan ere *ura/hura*, «H»-kin eta «H» gabe idazten zutela:

Gure mandoa urac engarren eta urac aroa (Prob. Garib.).

Hurac dacarrena, hurac daroa (Refr. y Sent.).

Eta Isasti berak:

Ur joanari presaric eguiñ ez (Comp. Hist.).

Urtara maiz dijoan jarroa, laster da autsi (Comp. Hist.).

Ontaz, utzi dezagun «norbaitek» «*Hureder*» «H» batekin idatzi zuela, eta beste «norbaitek» «H» dalako ori, zapla! ta kendu egin ziola. Eta, or geratu zala *Ureder* gaixoa, *Gornochena* eta *Ibaeta*-ren erdian, galduta bezela.

Eta onekin, zer? Zer erakusten digu «H» kentze orrek? Gizon baten joera uts bat zala?... Garai bateko joera zala?... Ondo egin zala?... Gaizki?... Auskalo! «H» zaleak eta «H»-ren aurkakoak billatuko dute ontan, ziur asko, bakoitzak bere aldeko argibide ta izpide naiko... edo geixko.

Hureder-ek, jakiña da, «Ur»/«Hur» du erro. Edaten dan «ura» alegia. Ez beste an urrutiko «hura», eta gutxiago oraindik jaten degun «urra».

Baiña, Irun'go etxean zerrenda ortan bertan *Ugalde*, *Ugarte*, *Uranzu*, *Ureta*... «Ur-», erro bera izanarren, sekula iñongo «H»-rik izan ez ba'lute bezela «U»-ren tokian, *Tompes*-en eta «U»-kin asten diran beste izenen artean azaltzen dira. Oek, dirudienez ez dute bada sekula «H»-rik izan, Isasti'ren lan ontan beintzat. Zergatik orduan *Hureder*, mamu baten antzera, galdu zan «H» orrekin eta beste gañentzekoak, lengoaz bestera, «H» gabe?

Badakigu (Ikus Barandiaran, Lekuona, Thalamas, Azkue Iribarren, Satrustegi, Caro Baroja, eta abar) ura, euskaldunen arteko sinismen, kondaira, ipuin eta oroipen askotan azaltzen dala.

*Ur goiena, ur barrena,
urte berri egun ona;
etxe onetan sar dedila
pakearekin ondasuna,
onarekin osasuna;
gure baratzan belar ona;
Jaungoikoak digula
egun ona...*

Eta berdin ura jaiotzen dan toki asko ere; iturri asko, alegia. Beren almen ikusgarri, beren mirarizko indar, beren arrigarrizko kemenagatik, saildutat artuak izan dira bat baiño geiago. Ortik datoz, nonbait, Irun'go, Bidart'eko, Tolosa'ko, Lezo'ko *uruneak*. Beste *Iturrisantu*, *Aingeru-iturri*, *Mariturri*, *Doneiturrieta* bezela.

Ureder-en «ur» ori beste tokietako ura ez bezelakoa ote zan ba, «H» baten apainketa merezi izateko?... *Hureder* onek «uronak» zuten indarra ote zuen ba?...

Bada-ezpadan Irun'go alderdi guzietako iturrien kimi-analisak egin ditut. Baiña iñongo iturrian ez dut ezeren berezitasunik arkitu... Santutasuna ez bait da kimika bidez neurtzen dana...

Bai!... «H» baten uskeria dana noski...